ERAIKUNTZA



Zurekin
DISEINUAK

KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO BEHAR DUZUNA,
ETORRI IKUSTERA KONPROMISORIK GABE!

Kanttonberri, 3, BERA
/ Tel: 722 52 14 71
zurekin@zurekindiseinuak.com

SUKALDEAK | LURRAK | ARMAIRUAK | ATEAK | TEILATUAK | EGURLANAK



AMM
Ateak eta automatismoak
Modu azkar eta eraginkorrean instalatzen dugu
AUTOMATISMOAK
ATE AZKARRAK
ATE SEKZIONALAK
ALUMINIOZKO IRRISTAILUAK
ALUMINIOZKO PERTSIANAK

948 152 902 | 608 30 36 62
ammpuertas.com

larreta lanak sl

IGELTSU PROIEKTATUA
PLADURRA
ISOLAMENDU TERMIKOA
ISOLAMENDU AKUSTIKOA
Bera - Nafarroa
www.larretalanak.com
larretaigeltsua@gmail.com
Gorka Arretxea 627 225 514
Juanen Saralegi 637 921 299

DIRULAGUNTZAK

Etxeak zaharberritzeko laguntzak urte osoan eskatzen ahal dira

Izan daiteke etxeko sarbidean oztopoak kendu edo igogailua jartzeko, inguratzaile termikoa hobetzeko, berokuntza sistema aldatzeko…

Nork eskatzen ahal du laguntza?

- Etxebizitza ohiko bizileku iraunkor gisa erabiltzen duen etxejabeak.
- Bizilagunen komunikate batek.
- Errentan dagoenak, betiere jabearen baimenarekin.

Zer egiteko?

- Etxearen segurtasuna eta egoera hobetzeko.
- Obrarekin energia aurrezteko.
- Bizigarritasuna hobetzeko (bainuontzia kendu eta dutxa jartzea, hodiak eta txorrotak aldatzea…)..
- Irisgarritasuna hobetu eta trabak kentzeko (bereziki adineko eta elbarriendako…).
- Bizitokiak 120 m2-ra arte handitzeko.
- Bizitoki berriak sortzeko (zatituz eta batuz) lehendik dauden etxebizitzetan.
- Berokuntza sistemaren efizientzia hobetzeko.

Zer baldintza bete behar dira?

- Etxebizitza **ohiko bizitegi iraunkorra izatea**, inola ere ez bigarren bizitokia.
- Etxeak **25 urte baino gehiago** izatea, salbu pertsona desgaituendako egokitu edo derrigorrezko arau teknikoak betetzeko baldin bada.
- Obraren **aurrekontu babesgarria 2.000 eurotik gorakoa** izatea bizitoki bakoitzeko.
- Eskaera egitean obra hasi gabe egotea eta behin-behineko kalifikazioa datatik zenbatuta, sei hilabeteko epean hasi eta 36 hilabeteko epean bukatu beharko da. 15.000 eurotik gorakoa ez duten obra ttikien kasuan, kontsultatu epeak.
- Dirulaguntza emateko, kontuan hartuko dira sustatzailearen familiaren diru-sarrera haztatuak, sustatzailearen adina eta eraikinaren antzinatasuna.

BERRITU NAHI DEN ETXEAK OHIKO BIZITEGI ARRUNTA IZAN BEHAR DU, ETA EZ BIGARREN BIZITOKIA.

Zein dira laguntza tramiteak dituen urratsak?

1. **Laguntza eta behin-behineko kalifikazioa eskatzea**. Aldi berean egiten dira tramiteak.
2. **Birgaitze obrak hastea**.
3. **Behin betiko kalifikazioa** (behin-behineko eta behin betikoaren arteko epea gehienez ere 36 hilabetekoa izanen da, obra ttikien kasuetan izan ezik.
4. **Dirulaguntza ordaintzeko ebazpena**.

Dirulaguntza motak eskatzailearen arabera

1. **Partikularrentzako dirulaguntzak**. Laguntza hauek familiak dituen diru sarreren araberakoak dira, errenta egokiagatiko erosahalmen-nahikotasunaren indizea (SARA) kontuan hartua. Zehatzago ikusteko, galdetu NASUVINSAk Donezteben edota EZABUk Lakuntzan duen bulegoetan.
2. **Bizilagunen komunitateentzako dirulaguntzak**, pisu etxeen eraikinak birgaitzeko obrak egiteko. Bi modalitate daude:
   - 25 urte baino gehiagoko eraikinetan **oztopoak kentzeko.**
   - 25 urte baino gehiagoko eraikinetan **inguratzaile termikoa edo energia efizientzia hobetzeko.**
3. **Alokairura bideratutako etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak**. Kasu honetan, baldintza espezifikoak bete behar dira. Galdetu NASUVINSAk Donezteben edota EZABUk Lakuntzan duen bulegoan.

AISLAnat
AISLANTE DE CELULOSA

ISOLATU ZURE ETXEA ETA AURREZTU

Isolamendu termikoa eta akustikoa

% 50 aurreztu | **Egun batean** | **Obrarik gabe**



BEGIRATU ZEIN ERRAZA DEN JARTZEA

AislaNat, **Nafarroan ekoiztutako** zelulosazko isolamendu bakarra.

Isolatu zure etxea zelulosarekin,
egun batean,
obrarik gabe,
gutxi gastatuta
eta **produktu ekologiko** batekin.

www. aislantesaislanat.es
948 33 00 15 - 627 41 22 69







DIRULAGUNTZAK

Nora joan etxeak zaharberritzeari buruz laguntza eta argibide eske?

Baztan-Bidasoko herritarrek Donezteben NASUVINSAk duen bulegora jo dezakete eta Leitzaldea-Urumealdekoek Sakanako EZABUra, Lakuntzan

Nafarroako Gobernuan, etxebizitzaren arloko eskumena Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politiken Departamentuari dagokio. Eta lurraldera etorrita, Ttipi-Ttapak hartzen duen eremuko herritarrek erreferentziazko bi bulego dituzte eskura: NASUVINSAk Donezteben duen Etxebizitza Bulegoa eta Sakanako Mankomunitateak kudeatzen duen EZABUa (Etxeak Zaharberritzeko Bulegoa), Lakuntzan. Bi bulego hauen egitekoa da etxebizitzarekin lotutako informazioa eta aholkularitza herritarrengana hurbiltzea, tramiteak erraztea eta administrazioen arteko koordinazioa hobetzea.

Zerbitzu gehiago ere badituzte, jakina, eta horietan aipagarri dira Alokairu Poltsarena, alokairurako laguntzak (DaVid eta EmanZipa), eta udalendako aholkularitza zerbitzua erabilerarik gabe dituzten udal eraikinak, etxebizitzak eta orube publikoak nola probestu ikusteko…

Etxeak zaharberritzea eta Alokaitu Poltsa: dagoen etxebizitza parkea probestea

Bizitegi berriak sustatzeaz gain, funtsezkoa da dagoeneko eraikita dauden bizitegiak berritzea eta erabileran jartzea. Horretarako, hiru palanka dituzte: **Birgaitze babestua** edo etxeak zaharberritzeko laguntzak; **Alokairu Poltsa**, etxebizitza hutsak alokairura bideratzeko programa publikoa; eta **Lehentasunezko birgaitze eremuak**, oraingoz Donezteko eta Arantzako herriguneak, eta laster Elizondoko herrigunea.

Hamabi urteotan 2.868 bizitegi birgaitu dituzte gure eremuan eta, horretarako, 19.726.489 euroko dirulaguntza erdietsi da. Ikusi hemen urtez urteko bilakaera:

Urtea	Bizitegiak	Dirulaguntza
2014	216	575.230 €
2015	95	635.212 €
2016	168	618.688 €
2017	168	1.012.331 €
2018	275	1.576.467 €
2019	285	2.142.845 €
2020	193	1.447.828 €
2021	201	1.494.934 €
2022	277	1.454.162 €
2023	354	2.353.991 €
2024	461	4.049.999 €
2025	175	2.364.802 €

Dirulaguntzak tramitatzeko edo informazioa eskatzeko NASUVINSAk Donezteben edo EZABUk Lakuntzan duen telefonoetara deitu eta hitzordua hartu behar da.





ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK | 2025eko datuak

ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZE ESPEDIENTEAK

HERRIA	Espedient. kop.	Etxebizitz. kop.	Aurrekontua	Dirulaguntza
Arano	0	0	0,00 €	0,00 €
Arantza	6	9	163.387,74 €	60.913,87 €
Areso	0	0	0 €	0 €
Baztan	33	516	1.891.285,66 €	551.379,89 €
Beintza-Labaien	1	1	6.055,97 €	1.816,79 €
Bera	13	20	471.339,58 €	134.167,13 €
Bertizarana	3	3	65.977,03 €	23.706,07 €
Donamaria	2	2	54.727,75 €	24.627,49 €
Doneztebe	8	19	323.177,87 €	151.669,50 €
Elgorriaga	0	0	0,00 €	0,00 €
Eratsun	1	1	7.746,86 €	3.486,09 €
Etxalar	2	5	75.357,43 €	44.076,56 €
Ezkurra	0	0	0,00 €	0,00 €
Goizueta		8	952.198,24 €	895.001,50 €
Igantzi	1	1	2.705,45 €	811,64 €
Ituren	2	2	64.658,52 €	15.467,85 €
Leitza		27	394.136,15 €	348.115,09 €
Lesaka	7	12	220.103,16 €	59.239,70 €
Oiz	0	0	0,00 €	0,00 €
Saldias	1	1	5.714,00 €	2.571,30 €
Sunbilla	2	10	66.960,29 €	13.900,89 €
Urdazubi	0	0	0,00 €	0,00 €
Urroz	2	2	16.159,41 €	7.271,74 €
Zubieta	2	2	70.015,25 €	26.578,89 €
Zugarramurdi	0	0	0,00 €	0,00 €
Denera	90	175	4.851.706,36 €	2.364.801,99 €

Taulan ageri diren kopuruak NASUVINSAk Donezteben duen bulegoaren bitartez eta Sakanako Mankomunitateak duen EZABU, Etxeak Zaharberritzeko Bulegoaren bitartez eskuratutakoa dira.

NELLU RUS
Reformas
FATXADAK, ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK OSORIK BERRITZEA
IGELTSERITZA, PINTURA, PLADURRA ETA AZULEJOA
RUS IOAN DANIEL
Tel: 670 84 12 68 E-mail: nellurus@hotmail.com
Pol. Industrial Zalain 18 F, 31780 Bera (Nafarroa)

I.M.
RRIXKO
IGELTSERITZA
IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK
ESTRUKTURAK
TEILATUAK
FATXADAK
ZAHAR BERRITZE LANAK
Tel.: 661 735 052 • ARANTZA • SUNBILLA

sasoi
eraikuntzak



ETXEGILEAK

«Lana beti izan dugu eta hagitz eskertua nago jendearen erantzunarekin»

JAVIER IBARRA IRAZOKI JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK



G. Pikabea SUNBILLA-BERA

Eraikuntza «afizio eta ofizio» du Javier Ibarra Irazokik. Halaxe aitortu dio Ttipi-Ttapari. Lanbidea «betitik gustuko» izan duela erranez segitu du eta zaletasun horri atea irekiz sortu zuen duela hamalau urte Javier Ibarra Eraikuntzak enpresa. Hori baino lehen, obra zibilean ibili zen sunbildarra, eta 2012an, eraikuntzara salto egitea erabaki zuen. Orduan sortu zuen bere enpresa.

Geroztik enpresa handitzen eta bere ibilbidea egiten ari da: «Nire kabuz hasi nintzenean, bi lagun ginen. Esperientzia eta konfiantza hartu ahala, lan eskaria ere goratu zen, eta langile gehiago kontratatzen hasi nintzen. Gaur egun, sei lagun gara: bortz kanpoko lanetan eta bat bulegoko lanean».

Lanari dagokionez, «orokorrean, mota guzietako eraikuntza lanak» egiten dituztela kontatu du: «etxebizitzak, zaharberritzeak, teilatuak, komunak, lurzoruak, harri lanak... Bezeroaren beharretara egokitzen gara». Ez hori bakarrik. «Gremioen koordinazioaz» ere arduratzen dira eta horrek «bezeroari lasaitasuna eta arintasuna» ematen diola azpimarratu du. Klase bateko eta bertzeko lanak izan, denak mimoz egiten saiatzen da Ibarra eta bere lanetik gehien gustatzen zaiona zer den galdetuta, «galdera zaila» dela erantzun du. Hori bai, onartu duenez, «azken urteotan baserri zaharrak zaharberritzea tokatu izan zaigu eta aunitz gustatzen zait gure eskualdeko etxeak berpizten ikustea. Hagitz polita da».

Zerbitzu ona emateko, berriz, «sekreturik ez dagoela» uste du: «Enpresa zintzoa eta hurbila gara. Beti argi eta konfiantzarekin solas egin izan dugu. Bezeroari gure zerbitzurik hoberena eskaintzen diogu, bertzerik gabe». Eta norbaitek obraren

LOHITZYNE
eraikuntzak
ETXEAK | TEILATUAK
ERAIKUNTZAK
OROKORREAN

Tfnoa: 948 615 110
Mug: 699 461 386
Eguzkialde etxea
31749 EZKURRA

ASKAPE
CONSTRUCCIONES SOBRINO, S.L.
Harrobia | Hormigoiak | Eskabazioak | Garraioak
Obrako hondakin kudeatzale zentroa
T. 948 592 111
canterasaskape@gmail.com


bat egiteko intentzioa baldin badu, hona bere aholkua: «Bakoitzak bere egunerokoa kontuan hartu behar du, bere beharretara eta erosotasunera egokitzen den eraikuntza lortu ahal izateko».

Erronka

Hamalau urteko ibilbidean ez omen du aldaketa adierazgarririk sumatu; «berdintsu» segitzen duela eta «sektoreak bizirik» dagoela erran du. Eraikitzeko modua ere «berez, ez da sobera aldatu», bere hitzetan. Aldatu dena diru kontua izan da: «Azken urteotan materialen prezioa aunitz goratu da eta horrek bezeroei bertzelako proposamenak aurkeztera eraman gaitu, prezioaren eta kalitatearen arteko oreka mantentzeko».

«Gazteak gure ofiziora erakarri behar ditugu. Hasteko formakuntza sustatu eta ondotik lan mundura gureganatu»

Baina hortik haratago, sektoreak badu bertze erronka bat sunbildarrak ohartarazi duenez: langile falta. «Zerbitzua eskaintzen dugun bertze enpresa aunitzetan bezala, eskulaneko langile kualifikatuak aurkitzea da gaur egungo arazo handienetako bat». Hortaz, inportantea iruditzen zaio «gazteak gure ofiziora, eta nire kasuan afiziora, erakartzea. Lehenbiziko, formakuntza sustatu behar da, eta ondotik, lan mundura gureganatu».

Izan ere, lana egon badago. Ibarrak enpresa martxan paratu zuenetik krisi garairik ez duela ezagutu aitortu du; eta gehitu duenez, «ez dut ezagutu nahi». Bere egoera bertzelakoa da: «Hagitz kontent nago. Lana beti izan dugu eta gaur egun ere buru-belarri ari gara inguruko herrietan. Hagitz eskertua nago jendearen erantzunarekin». Ez hori bakarrik. Gainera, langileak behar ditu. Horregatik egin du «gure enpresara lanera etortzeko gonbita: Norbaitek interesa izanen balu, nirekin harremanetan jar dadila konfiantza osoarekin».

EZKAIN
Eraikuntzak S.L.
650 910 867 / 948 610 956
650 910 868 ezkain1@gmail.com
Lizarraga, 3 - 31880 LEITZA

ELIZAGA MUGIKA SL
conselmu
CONSTRUCCIONES

Etxebizitzen eraikuntzak
Teilatu berriztatzeak
Mota guztietako erreformak
T. 636 815 926 | conselmu@hotmail.com
www.construccioneselizagamugika.es

JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK
699 122 815 javieribarra@ibarraeraikuntzak.eus

GREMIOEN KOORDINAZIOA
Sunbilla, Nafarroa
Etxebizitza berriak | Zaharberritzeak | Erreformak | Konponketak
Teilatuak | Harri eta hormigoi lanak | Mota guztietako igeltseritza lanak

Philippe GAMOY Geologoa
IKERKETAK
· Geologikoak
· Geoteknikoak
· Hidrogeologikoak
· Ingurumenekoak
Zimentazioak · Lur azpiko urak
Ezponden egonkortasuna · Zabortegiak
Tel. 620 79 60 05
ph.gamoy@yahoo.com
Azpa kalea 1, 1C · 31016 · Iruñea
444 Zabaloko bidea · 64250 · Itsasu

ikerna garden
Intercesped eta DPT Igerilekuen banatzaile eta instalatzaile ofizialak
Goi mailako belar artifiziala
Igerileku prefabrikatuak obrarik gabe
Eguzki dutxak...

Kanpoko zure espazioa itxuraldatuko dugu!

Eskatu hitzordua
NAFARROA - 638 793 713
GIPUZKOA - 675 770 344
www.ikernagarden.com

ETXEGILEAK

«Nire lanak bizitza eman dit eta aunitz gustatzen zait egiten dudana»

JOSE SARMIENTO JAPON BRIKO BAZTAN



R. Oskariz NARBARTE

2009an langabezian gelditu zen Jose Sarmiento Japon, «krisiaren ondorioz», eta orduan erabaki zuen autonomo gisa lanean hastea. «Lehen Baztango eraikuntza enpresa batean aritzen nintzen, eta esperientzia nuenez, nire kabuz aritzea erabaki nuen. Momentu hartan *Briko Gipuzkoa* jartzen zuen furgoneta bat ikusi nuen, eta aldi berean *Bricomania* telesaila aunitz ikusten nuen, eta handik sortu zen izena: Briko Baztan». Gaur egun langile gehiagorekin aritzen da, «baita bertako bertze autonomoekin ere, egin beharreko lanaren arabera».

Denborarekin lana dibertsifikatuz joan dira: «pinturarekin hasi ginen eta obrako eskaintza zabaltzen joan ginen, lan berri guzietarako prestatuz: pintatzen ari ginelarik pladurra jartzeko eskatu ziguten, eta hori ere ikasi genuen, gero egurra lantzen hasi ginen: ateak, leihoak, eskaileRak... gaur egun lan ugari egiten ditugu, bezeroak eskatzen digunari egokituz». Gainera, «lanen bat egiten ez badugu, harremanetan jartzen naiz gremio hortako langileekin».

Urteko sasoiaren araberakoak izaten dira egiten dituzten lanak. «Udan jende aunitzek teilatuak eta fatxadak konpontzen ditu, eta lorategiko lanetan ere aritzen gara. Orain, udazken eta neguan, pintura eta pladur lanetan, komun eta sukaldetan eta igeltsero lanetan aritzen gara gehien».

Argi du beti «hurbileko ekonomia» dela bere lanaren filosofia; «materialak bertan erosten ditugu: Almacon, Menditxurin... eta hemengo langileekin aritzen gara elkarlanean. Horrela, aberastasuna bertan gelditzen da, eskualdean».

Lan eremuari dagokionez, «orain arte gehienbat Baztanen aritu izan gara, baina azken aldian Malerrekan ere lan aunitz egiten hasi gara». Narbarten du etxea, Legasako sarreran, eta bertan denda ere badute: «orain arte bazar baten modukoa zen, baina berritzen ari gara eta pertsonalizatuagoa izatea nahi dugu, eraikuntzaren bukaerara bideratua: pinturak, pladurra... brikolajeko lanak egiteko». Gainera, «bertan familiako ile apaindegia ere badugu, dena etxean!».

Langile falta

Urteekin «aldaketa aunitz» ikusi ditu lanbidean, «batez ere belaunaldi erreleboan. Jende aunitz jubilazioa hartzen ari da eta gazteek ez dute

ofizioarekin segitu nahi, nahiago dituzte bertze lanak». Sarmiento-rendako, berriz, «ofizio polita da, ez da lan mekaniko bat, artisautza baizik. Eskuekin egiten dugu lan eta bakoitzaren eskuak edo izan duen maisuak eragin handia du obraren azken emaitzan».

Lana maite du, «bizitza» eman baitio. «Langabezian gelditzean depresio handia izan nuen, eta lan berrian hasteak hortik ateratzen lagundu zidan. Lanak dena eman dit: nire familiarendako mantenua, nire seme-alabendako etorkizun bat... dena». Gainera, negozioak segida izanen duen itxaropena du: «alaba zaharrenari aunitz gustatzen zaizkio eskulanak, interesa erakutsi du eta arras trebea da. Seme ttikiena oraindik gazteegia da».

«Belaunaldi erreleboa da sektorearen erronkarik handiena, honetan lan egin nahi duen jende gaztea falta dugu»

Etorkizunera begira, «jende falta» ikusten du sektorearen erronkarik handiena: «hemendik 10-15 urtetara ez da langilerik izanen. Hemengo gazteek nahiago dituzte bertze lan erosoagoak, eta geroz eta atzerritar gehigo gara horrelako lanak hartzen ari garenak». Eraikuntzatik kanpo ere, «ostalaritzan, turismoan... langileria falta da».

Azkenik, aldarrikapen argi bat plazaratu nahi izan du: «utz gaitzatela lan egiten! Administrazioak oztopo gehiegi jartzen dizkigu langile ttikioi, obra baimenek luzeegi hartzen dute eta zerga aunitz ditugu. Ofizioan gutti gara eta lagundu beharko ziguten, ez traba gehiago paratu». Azaldu duenez, «etxe bat zaharberritzeko edo eraikitzeko hainbertze denbora behar bada, jendeak nahiago du kanpora joan bizitzera. Burokrazia arinduta jendea errazago gelditukо litzateke bertan bizitzen, lan gehiago izanen litzateke eta ondorioz dirua ere hemen gelditukо litzateke. Ziklo bat da eta hori zaindu behar dugu etorkizuna bermatu nahi badugu».

SERRERIA ALEMAN S.L
Teilaturako estrukturak • Tarima • Laminatuak • Haritza • Tratamenduak • ...

Frantziako errep. 2-A ERRATZU
Tel. 948 453173 - Fax: 948 453082
serreriaaleman@gmail.com

BRIKO BAZTAN, SL
Obrak, eraberritzeak eta pintura
Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea
Pinturak
Fatxadak
Pladurra
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak
Egurrarentzako tratamenduak:
Egur lakadura eta bernizadura
Egurra konpontzeko injekzio-sistema
Sitsaren eta pipiaren kontrako tratamenduak
T. 608 016 052 | San Andres, 66 · NARBARTE (Sarrera Legasatik) | briko-baztan@hotmail.com







ASEGURUAK

«Bezeroari goxotasuna eta hurbiltasuna adieraztea inportantea da»

TERE BEREAU MAZIZIOR BERAKO MAPFRE ASEGURU ETXEA

G. Pikabea BERA

«Bezeroari aditu eta bere nahiei eta beharrei zureak balira bezala erantzun». Horixe da Berako Mapfre Aseguru Etxeko Tere Bereau Maziziorren hitzetan, zerbitzu ona eskaintzeko sekretua. Eta bide beretik, bezeroekin harreman ona ziurtatzeko gakoa «goxotasuna eta hurbiltasuna adieraztea» dela iruditzen zaio. Hain zuzen, horixe dute helburu Mapfren euren eguneroko martxan.

Bortz bulego, hamahiru langile

«Aseguruak, inbertsio, pentsio eta aurrezki produktuak...». Zerbitzu horiek eskaintzen ditu Mapfrek eskualdean. Bortz bulego dira denetara: Beran, Donezteben, Elizondon, Leitzan eta Lesakan. Bereauk esplikatu duenez, «enpresa autonomoak gara, eta Mapfre entitateko aseguruak eta produktuak saltzen ditugu». Berakoa izan zen ateak ireki zituen lehenbizikoa, baina denak ere ibilbide luzekoak dira: «Beran, 1960 aldera, Doroteo Legia bere etxean aseguruak saltzen hasi zen. Elizondoko, Donezteboko, Leitzako eta Lesakako bulegoek, berriz, duela 40 bat urte ireki zituzten». Hortxe segitzen dute geroztik eta gaur den egunean, bortz bulego horietan hamahiru langile dira.

Batzuetan eta bertzeetan, aseguruen eskaintza zabala dute: «Autoak, motoak, kamioiak, traktoreak, etxeak, komunitateak, komertzioak, enpresak, osasuna, bizitza, istripuak, erantzukizun zibila, obra eraikuntza...». Klase horietako aseguruak eta gehiago dituzte aukeran, baina argitu duenez, «gehien kontratatzen diren aseguruak ibilgailuenak dira, hain zuzen, aseguru mota horiek derrigorrezkoak direlako».

Ezjakintasuna

Aseguruen munduan «ezagutza falta nabarmena» sumatua du Bereauk, eta hala, «bezeroen artean zalantza aunitz» izaten direla kontatu du: «Ez dira egunerokoan gertatzen diren egoerak, eta horrek ezjakintasuna handiagoa izatea dakar».

Urteekin jendearen kezkak aldatu direla ere gehitu du eta bereziki «Interneten eragina nabaria» izan dela aitortu du, «jendeak informazioa eskurago duelako. Teknologiaren aitzinamenduaren ondorioz, hau da, Internet, Whatsapp, e-mailak... tarteko, lanerako arintasun eta erraztasun handia dugu. Konparazio batera, bezeroak informazio guzia e-mailez eskatzen ahal du, guk gisa berean informazio guzia bidali eta adostasunera ailegatuz gero, kontra-



mañonea
ASEGURUAK - AGENTZIA
Braulio Iriarte, 9 | ELIZONDO
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43
info@mainonea.com
ASEGURUAK - AGENTZIA
www.mañonea.com
Barride KOMUNITATEEN KUDEAKETA (administrazioa, kontuak, obra...).
MOTA GUZTIETAKO ASEGURUAK
Kontable, zerga, lan eta juridiko AHOLKULARITZA
IBILGAILUEN TRANSFERENTZIAK
INMOBILIARIA 3H iru home



Maite Inza ezkerrean eta Tere Bereau zutik eskuinean, Mapfreren Berako bulegoan.

tazioa e-mailez sinatzen ahal dugu, bulegora hurbildu gabe».

Merkatuan lehia

Gainerakoan, aseguruen munduan «izugarrizko konpetentzia» dagoela onartu du Bereauk: «Aseguruak saltzen aritzen garen entitate pila bat gara. Eta gainera, Internetek eskaintzen duen irisgarritasunari esker, erabiltzaileek produktuen eskaintza zabalerako sarbidea dute».

Etorkizunera begira jarrita, berriz, erronka nagusia «berotze globala» dela iruditzen zaio: «Hondamendi naturalen ondorioz izaten diren ezbeharrak goiti doaz; sumendiak, suteak, uholdeak, lurrikarak... Horrek erakusten digu horrelako ezbeharren ondorioz, aseguru ona behar dugula».

Hortik aparte, jendeari «bakoitzaren beharren araberako asegurua bilatzeko» aholkatu dio. «Adibidez, bizitza poliza batean, bizitza pertsonalaren arabera, norberaren beharrak kontuan hartu behar dira».

Zalantza edozein dela ere, ateak irekiak dituztela oroitarazi du: «Etorri gure bulegoetara beldurrik gabe». Gehiago ere bai; Bereauren ustez, «zalantzak argitzeko» biderik hoberena, «bulegora hurbiltzea da».













IGOGAILUAK

«Erabiltzaile eta eraikin bakoitzaren beharretara egokitzen gara»

JUAN CARLOS AGIRREZABAL LOIARTE AGIRREZABAL IGOGAILUAK



E. Iraola IRUN

Duela 70 urte sortu zuten Agirrezabal igogailuak enpresa eta familiako negozioari segida ematen ari da Juan Carlos Agirrezabal Loiarte: «nire aitak sortu zuen enpresa eta familiako negozioa izan da beti. Nire bi anaia aritu ziren nire aurretik eta gero hasi nintzen ni. 30 urte daramatzat bertan eta etorkizunean ere etxekoen eskuetan gelditukо dela dirudi. Iloba batek negozioarekin segitzeko asmoa du».

Irunen eta inguruko herrietan igogailuak muntatzen eman zituzten lehenbiziko pausoak eta urteekin lan eremua zabaldu dute: «Irunen dugu enpresa, baina Euskal Herri osoan aritzen gara lanean. Gipuzkoatik hasi eta Bizkaian Durangora arte, baita Nafarroako iparraldean ere. Bortziriak, Baztan, Malerreka eta Xaretan urteak daramatzagu zerbitzua eskaintzen». Esaldi batean laburbildu du egiten duten lana: «mota guztietako igogailuen diseinuan, instalazioan, konponketan eta mantentze lanetan aritzen gara». Helburu argi batekin: «gure bezeroen bizi kalitatea hobetzeko lan egiten dugu, etxebizitzetako irisgarritasuna hobetzeko sistemak eskainiz».

Neurrira egindako irtenbideak


Eraikin pribatu eta publikoetan irisgarritasun arazoak konpontzeko hainbat alternatiba eskaintzen dituzte: «igogailuak, plataforma hidraulikoak, karga edo plateren igogailuak... kasu bakoitza aztertzen dugu, bezeroaren eta eraikinaren beharretara hobekien egokitzen diren produktuak eta irtenbideak eskaintzeko». Eraikuntza berrietan aritzen dira eta igogailuen zaharberritzeak ere egiten dituzte: «araudia zorrozten doa eta segurtasuna bermatzeko, hainbat moldaketa egin behar izaten zaizkie aurretik jarrita dauden makinei». Igogailurik ez dagoen eraikin zaharretan «igogailuarentzat tokia egitea» ere bada beraien lana. Horregatik, eskaera bat jasotzen dutenean, bertara joan eta egitura ikustea izaten da lehenbiziko pausoa: «izan ditzakegun zailtasunak ikusi eta igogailua, non eta nola jarri behar den erabakitzeko bertatik bertara ikusi beharra dago. Guk, hutsetik, diseinatzen dugu igogailua eta, horrela, neurri estandarretara mugatu beharrik gabe, espazioa ahalik eta gehien aprobetxatzen dugu».

Igogailua jartzeko egin beharreko moldaketak handiak izaten dira batzuetan, «eskailera osorik bota, lekuz aldatu, ataria berritzea...». Obra guztia koordinatzeaz beraiek arduratzen dira, «guretzat lan egiten duten konfiantzazko gremioak ditugunez, epeak ahalik eta gehien murriztea lortzen dugu. Obrak irauten duen bitartean eraikin horretan bizi direnen egunerokoan ahalik eta kalte gutxien eragitea lortzen dugu horrela».

Igogailuen mantentze lanak dira eskaintzen duten beste zerbitzuetako bat: «urteko 365 egunetan, 24 orduz eskaintzen dugu zerbitzua». Edozein igogailu markekin lan egiten dutela ere argitu du: «konponketaren bat egin beharko balitz, marka guztietako pieza originalak ditugu». Mantentze lan horien barrenean daude aldizkako azterketak ere. Zerbitzu integrala da eskaintzen dutena: «zerbitzu profesionala, kalitatezkoa eta beharrezko berme guztiak eskaintzen dituena».

www.imcaelevacion.es

IMCALIFT
ELEVACIÓN



Aprobetxatu aulki eskailera-igogailuentzako eta etxeko igogailuentzako
DIRULAGUNTZAK
Eskatu informazioa konpromisorik gabe







Etxeko eskailerak igotzeko eta jaisteko arazoak dituzu?

Hobetu etxe barruko mugikortasuna eta gozatu zure etxeaz oztoporik gabe. **Imcalift**-en eskailerak seguru eta eroso igotzeko eta jaisteko soluzioak ditugu.







KONTSULTATU DIRULAGUNTZAK ETA ORDAINDU MODU EROSOAN

ARRETA PERTSONALIZATUA:

948 235 974

AURREKONTUA
BISITA ETA AZTERKETA
KONPROMISORIK GABE

Mutilva Industrialdea, F kalea, 12. zk. NAFARROA

LABORRA ARKITEKTOAK
- Gabriel & Ines -
www.laborra.com
Santiago 66, 1º - ELIZONDO - 948.580.122

DOAREA
arkitektura bulegoa
Orain ere
Arkitektura zerbitzu orokorrak
Nahi al duzu zure etxea akitu aurretik nola geratuko den ikusi? Irudi fotorrealistak sortzen ditugu.
Barne diseinu proposamenak:
Etxe osorako nahiz estantzia bakoitzeko
Material eta altzari aukeraketa
Obrarekin edo obrarik gabeko dekorazio zerbitzuak
IRURITA
maite & idoia danborinea olaetxea T. 948 140 806

ARKITEKTOAK

«Amestutako etxebizitza horri paper gainean forma ematea da gure lana»

INES LABORRA BARRAU LABORRA ARKITEKTURA ESTUDIOA

E. Iraola ELIZONDO

Orri xuriaren gainean, bere aitak etxebizitzak nola marrazten zituen ikusiz piztu zitzaion Ines Laborra Barrauri arkitekturarako interesa: «gogoan dut nola etortzen ginen estudiora. Gustura ikusten nituen aitaren lanak». Ikasketak hautatzeko garaia ailegatu zitzaionean, «bere pausoak segitzea erabaki eta arkitektura ikasi nuen nik ere». Eraikuntzako krisialdi bete-betean lortu zuen titulua eta hasierako urtetan bertzelako lanetan aritu ondotik, «aitarekin lanean hasteko aukera» izan zuen. Geroztik, aita-alabak ari dira Laborra arkitektura estudioan.

Komunikazioa ezinbertzekoa

Estudio ttikia direla dio, «etxekoa, familiarra...» eta bezeroei «gertutasuna eta konfiantza» transmititzen saiatzen dira. Komunikazioa ezinbertzekoa dela azpimarratu du, «amestutako etxebizitza horri paper gainean forma ematea da gure lana eta horretarako ezinbertzekoa da bezeroa ezagutzea». Lehenbiziko hitzordutik gauzak argi uztea funtsezkoa da: «saiatzen gara ilusioari eusten eta aldi berean erakusten zeintzuk izan daitezkeen bidean izan ditzaketen oztopoak. Prozesu horretan, beraien bidelagunak izanen garela sentitzea nahi dugu». Urtetako esperientzia dutenez, «egindako lanak erakusten dizkiegu, antzeko kasuak azaldu... eta informazio hori lagungarria izaten da proiektua bideratzeko orduan».

Bilera horietan diru kontuei lotutakoak izaten dira bezeroek argitu nahi izaten dituzten lehenbiziko kezkak: «eta horixe izanen da azkena jakinen dutena. Prozesu guztia pasatu behar da hori jakiteko, etapa aunitz. Estimazio batzuk egiten dira, baina gero gremio bakoitzak emanen die benetako prezioa. Eraikuntzan bertan ere izaten ahal dira aldaketak... eraikitzen duzun arte jakin ezin ditzakezunak». Etxeak geroz eta garestiagoak direla ikusten du: «etxe merke bat egin nahi duenak ere, araudia bete behar du. Ez da bakarrik materialaren prezioa goratu dela, etxebizitzek geroz eta exijentzia gehiago bete behar dituzte». Horren ondorioz, «geroz eta etxebizitza txikiagoak» egiten direla aipatu du.

Arkitektoen lana

Araudia zorrozteak eragin zuzena izan du arkitektoen lanean: «lehenago arkitekto batek denbora gehiago behar izaten zuen marrazteko, ez zeudelako horretarako hainbertze programa. Orain teknologiari esker marrazteko denbora murriztu da, baina aunitzez

EDUARDO ZUBIKOA
arkitektoa 609384293
OBRA BERRIKO proiektuak
BIRGAITZE- eta
BERRITZE-proiektuak
OBRA ZUZENDARITZA
IGOGAILUA jartzeko proiektuak
EEE/CEE eta IEE beteraztea
Aholkularitza URBANISTIKOA
www.eduardozubikoa.com
Parrokia 15, behea - DONEZTEBE | Irunlarrea 61, behea - IRUÑA



Ines Laborra eta bere aita, elkarrekin aritzen dira lanean Elizondon duten estudioan.

denbora gehiago behar dugu araudia betetzen dela justifikatzeko».

Etxebizitzei geroz eta gehiago exijitu edo muga gehiago jartzen zaizkie: «Geroz eta etxebizitza efizienteagoak nahi ditugu eta horretara bideratuta dago gaur egungo eraikuntza. Kalkuluak egin behar izaten ditugu baldintza guztiak betetzeko».

Diseinatzeko garaian, aitortu du batzuetan ezin dutela guztiz askeak izan: «gure herrien bereizgarria da, etxebizitzek duten itxura uniformea. Araudi zorrotza dago horri lotuta, leihoen tamainak, etxebizitzen altuera...». Zerbait modernoagoa egin nahi dutenei, aukerak ere eskaintzen dizkiete: «tradizioa eta modernitatea uztartuz». Batzuetan, administrazioekin «borrokan ibili» behar izaten dutela ere kontatu du: «Kontraesanak izaten dira, batez ere, zaharberritzeetan. Erakunde bat baino gehiagok jartzen dituzte bete beharreko baldintzak eta ez da erraza eskakizun guztiak betetzea». Adibidez, «batek ez dizu uzten leihoen tamaina moldatzen eta bertzea etxe barreneko banaketa egiteko leihoen gutxieneko tamaina bat eskatzen ari zaizu...». Horren aitzinean, «bezeroak nahi duen etxea eraikitzeko alternatibak topatzea da gure eginbeharra».

Zerbitzuak

Familia bakarreko etxebizitzak egiten dituzte eta zaharberritzeetan edo etxe zaharretan etxebizitza berriak sortzen ere esperientzia dute. Tarteka lokal komertzialen bat ere egiten dute eta gaur egun eraikinen liburuak egitea ere aunitz tokatzen zaiela aipatu du: «duela hamabortz bat urte indarrean jarri zen bertze araudi bat da. 50 urte baino gehiago dituzten etxebizitza blokeetan azterketa orokor bat egitea eskatzen dute». Garaian garaiko eskaeretara egokitu eta arkitektura maite duten etxean, segiko dute orri zuriaren gainean etorkizuna eraikitzen.









carpinteria
EZPELA
zurgindegia
Urruña, 2
31780 BERA
Tel.: 678 350 412 (Eloy)
617 081 335 (Matias)
eloyordoqui@hotmail.com

PatxiJaurena
ZURGIN LANAK OROKORREAN
MENUISIER - CHARPENTIER
628 550 490 - URDAZUBI(Na)
ursunea@gmail.com

MADERAS SANTESTEBAN
Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
Bigak · Montajea obran
Teilaturako egiturak
Izei, haritza eta douglasezkoak edo laminatua
Osagarriak · Autoklabe tratamendua
www.maderasantesteban.com
Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com

Lizasoain, S.L.
Zurgindegia
ERREFORMAK OROKORREAN
LEIHOAK · ATEAK
ESKAILERAK · ARMAIRUAK
SUKALDEAK · PERSIANAK
948452077 · Zaldubia ind. · 31730 IRURITA
carpinteria.lizasoain@gmail.com

ZURGINAK

«Eskulanean gustura aritzen naiz eta lanbide honetan hartu nahi nuke erretiroa»

JUANTXO JUANOTENA OIARZABAL JUANOTENA ZURGINDEGIA



E. Iraola DONEZTEBE

Ikusiz ikasten dela erran ohi da eta zurginez inguratuta hazi zenez, etxean ikasi zituen lanbidearen sekretuak Juantxo Juanotena Oiarzabalek. Hala kontatu du: «metalgintzako ikasketak egin nituen nik, baina ez dakit patuagatik edo izanen den... zurgin aritu izan naiz beti. Etxean denok gara zurginak». Hamabi bat urte zituela hasi zen etxekoen tailerrera laguntzera joaten eta hogei urterekin bilakatu zen zurgintza bere ogibide: «tailer batean aritu nintzen lauzpabost lagunekin urte mordoxka batean eta 2017an nire kontura jarri nintzen».

Gaur egun, eraikuntzarako lan aunitz egiten duela azaldu du: «zolak eta ateak paratzen, zokaloak, leihatilak, teilatuak, leihoak... Tailerrean prestatu eta gero behar duen tokian jartzea izaten da nire lana». Obrara joan aitzinetik, orduak ematen ditu tailerrean, «dena ahalik eta hobekien prestatuta eramaten saiatzen naiz». Ezagutza teknikoa eta urtetako esperientzia ditu eskaintzeko: «Eskulanetik ere aunitz du gure lanbideak; egiten duzun lan bakoitza desberdina da eta polita da hori. Pentsatu egin behar duzu nola egin gauzak, aukera posibleak baloratu eta bezeroaren eskaeretara hobekien egokitzen dena proposatu».

Azaldu du etxe bat egiterakoan zurgina izaten dela azkenetarikoa sartzen den gremioa eta hori nabaritu egiten dela: «Igeltseroarekin hasten dira gastatzen; gero, elektrizista eta iturgintza lanak etortzen dira... eta pintore eta zurginera ailegatzerako gerrikoa estutzen hasten da jendea».

Aldaketa

Egurraren prezioa garestitu izanak ere eragin du eta «alternatiba merkeagoek» indarra hartu dute: «Egia da etxebizitzetan geroz eta gehiago ikusten dela egurra. Erabiltzen den egurra, ordea, ez da trinkoa. Ikusten dena egur kolorea dela erranen nuke... melaminak baitira, gehienbat erabiltzen direnak». Erosteko orduan ere lehentasunak aldatu direla uste du: «Jendeak altzari bat erosten duenean momentuko modak hartzen ditu kontuan, *maribistarako* egiten du jendeak eta egur trinkoarekin ez da egiten hori». Juanotenak dionez, altzariei ematen zaien balioan eta beteko duten funtzioan eman da aldaketa handiena: «garai batean armairu bat erosten zenuenean, bizitza osorako altzari bat erosten ari

zinen, nolabaiteko inbertsio bat zen. Aunitzetan belaunaldiz belaunaldi igaroko zen... orain lehenago aspertzen gara eta kontuan izanik ez dela bizitza osorako zerbait izanen, jendeak ez du gastu hori hain erraz egiten».

Eskaera berezietarako bai, orduan joaten zaizkio neurrira egindako altzarien eske: «Altzari bereziren bat, mahaiak, armairuren bat... enkarguz gisa honetako lanak egiten ditut. Elkarte edo txoko baterako pieza berezi bat, kapritxo berezi bat nahi dutenak etortzen dira». Horiek badakite, lan horien gibelean zer dagoen: «ordaintzeko prest dagoen jendea da. Altzari hauen prezioa bertze bat da, eskulana dago, ordutako lana eta emaitzan ere nabaritzen da. Ezin da saltoki handiek saltzen dituzten altzari merkeekin alderatu».

«Eskulan faltak eta erreleborik ez egoteak kezkatzen nau. Denok gabiltza ezinean eta ez dago lanerako jenderik»

Egurrezko leihoen eskaerak ugaritu zaizkio azken urteetan: «leiho aunitz ari gara jartzen. Arrunt leiho onak egiten dira eta aukera aunitz daude. Bide batzuk itxi dira, baina bertze batzuk ireki...». Argi du zer den egin beharrekoa: «bezeroak zer nahi duen aditu, eta bere aurrekontura egokitzen diren aukerak eskaintzea da orain gure lana».

Erreleboa

Eraikuntzako sektorean ari diren gehienei bezalaxe, «eskulan faltak eta erreleborik ez egoteak» kezka eragiten dio Juanotenari: «denok gabiltza ezinean eta ez dago lanerako jenderik». Ez du uste epe motzean gauzak aunitzik aldatuko direnik: «lanbide honetan orduak sartu behar dituzu eta gaur egun jendeak ez du hori nahi. Zortzi orduz lanean aritu eta etxera lasai joan nahi dute. Autonomo aritzen denak ez du behin ere fitxatzen eta burua beti lanean du». Badu alde onik ere, «eskulanean arituz gozatzen dut nik eta lanari neurria hartzen asmatuko bagenu, norbere nagusia izatea ere ez hain txarra».






AROZTEGI METALIKOA

«Espezializatutako eskulana behar da eta gazteak animatu daitezela»

VICENTE SEISDEDOS CURTO JOISA TAILERRAK

G. Pikabea LESAKA

Ikasketak bukatuta, «enpresa batetik bertzera» ibili zen Vicente Seisdedos Curto, «hilabete bat hemen, bertze hiru hilabete han...». Azkenean, enpresa batetik eskaintza hartu, eta hantxe hasi zuen ibilbide profesionala. Hasierako urte haiek bertzeentzat lanean pasatu zituen eta orduko oroitzapen onak ditu: «Eskolatik atera berria nintzen, hasiberria, baina maisu ona izan nuen. Orain hila da, baina estimu handia nion. Aunitz ikasi nuen berarekin: nola lan egin, trukoak, jendearekin nola jarri harremanetan... Hagitz eskertua nago».



Hantxe segitu zuen ondoko urteetan: «Gero eta lan gehiago sartu zen, eta enpresa indartsuetako mantentze lanetan gero eta ordu gehiago egiten hasi ginen». Baina aldi berean, hutsunea sumatu zuen Seisdedosek: «Herritarrak gauzak eginen ote genituen galdeka etortzen ziren, eta guk 'ez, orain ezin dugu' erantzuten genien». Orduantxe ikusi zuen bere enpresa sortzeko aukera: «Zergatik ez herritar horiekin lan egitera dedikatu? Lehengo nagusiek babesa erakutsi zidaten eta pausoa ematera animatu nintzen». Halaxe jaio zen Lesakako Joisa Tailerrak, Seisdedosek kontatu duenez, «duela hogeita sei urte».

26 urteko bidea

Bi hamarkada hauetan «sektorea aunitz aldatu» dela iruditzen zaio, eta bidean, «denetarik» ikusi duela onartu du: «Hasiera hartan, eskaera handituz joan zen, lan aunitz sartu zitzaidan eta enpresa ere handitu zen». Zehaztu duenez, «eraikuntzaren booma etorri zenean, goia jo genuen». Baina txanponaren bertze aldea ere ezagutu zuen, krisiak eraikuntza astindu zuenean, Joisa enpresako jabeak ere sumatu baitzuen kolpea: «Goia bai, baina beheraldia ere etorri zen: langileak sobran, enpresek ez zuten ordaintzen... Jende ona nuen, familiarekin... eta gogorra izan zen

APITTU
ALUMINIO LANAK
PVC
Aluminiozko Leihoak, Kontraleihoak,
Ateak, Portxeko itxidurak eta barandilak
M. 677 59 48 92
Auzoberri, 1 | 31770 Lesaka
apittulesaka@gmail.com

JOISA
AROZTEGIA · MAKINA ERREMINTA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK
Barandak · balkoiak · ateak · hesiak · forja artistikoa

646 774 117
www.talleresjoisa.com
talleresjoisa@hotmail.com
Otsango Ind. 31770 LESAKA

TEYMO S.L.U.
BANATZAILEA
Aroztegi Metalikoa
Industria-nabeak
eta granjak
egiten ditugu

Zaldubi ind. IRURITA | T. 948 580 538 | 630 184 847

hiruzpalau lagunekin gelditzea». Garai hura mugarria izan zela gehitu du: «Aldaketa ekarri zuen, beldur gehiago, jendea erretxinduagoa, lan egiteko bertze modua...». Eta hala, hasierako ideiari eustea erabaki zuen: «Hasieran nahi nuenarekin gelditu nintzen: karrikako jendearentzat lan eginez, bezero hurbilagokoekin».

Gaur egun, lau langile dira enpresan eta «ate automatikoak, eskailerak, barandak, balkoiak, hesiak...» egiten dituzte. «Bizpahiru enpresetan mantentze lanak egiten ere aritzen gara, baina beti herritarrek eskatutako lanetarako denbora hartzen dugu».

Lana bai, langileak falta

Lan faltarik ere ez dute: «Bada lana», dio. Baina «langile kualifikatuak falta», hortxe koxka; «jende profesionala behar dugu». Eta horren gibelean, gabezia ikusten du: «Gaztetxoak lan bila etortzen dira, baina uste dut hartzen duten prestakuntza ez dela lehen bezalakoa. Nik Makina erremintetako operadore eta doitzaile ikasketak egin nituen, eta goi mailako ziklo horrekin denetarik ikasten genuen, edozein arlotan lan egiteko oinarria: pneumatika, hidraulikoa, elektrizitatea... Nahiko osatuak ateratzen ginen, nahiz eta lanean gehiago ikasten den, bizitza eskola bat delako. Gaur egun, ordea, Lanbide Heziketako ikasketak espezializatuegiak dira, eta hagitz eremu zehatzetan zentratzen da. Eta, berez, enpresa aunitzek, batez ere ttikiek, eta tartean Joisak, prestakuntza transbertsalagoa eta askotarikoagoa duten profesionalak behar dituzte, gurean herritarrek aldiro gauza diferenteak eskatzen dituztelako; tokatzen ahal zaizu motor batentzat piñoi bat egin behar izatea edo ate automatiko bat programatu behar izatea. Uste dut ikasketak denetarik zerbait ikastera bideratuko beharko lituzketela. Arazo hori sektore aunitzetan pasatzen da».

«'Zergatik ez herritar arruntekin lan egitera dedikatu?' pentsatu nuen eta enpresa hala sortu nuen duela hogei bat urte»


Horren harira, «gauzak aldatzen ez badira», sektorearen etorkizuna «beltz» ikusten du Seisdedosek: «Gurea bezalako enpresa ttikiak babesik gabe daude eta ikasketak ez badituzte enpresa ttikien beharretara egokitzen, akabo». Gaineratu duenez, «jendeak ingeniaritzak, arkitektura, medikuntza... halako ikasketak egin nahi ditu eta bertzelako ofizioak ikasteko gazteak falta dira». Hala ere, kontent da «azken aldian, Lanbide Heziketaren bidea gero eta gaztetxo gehiagok» hartzen dutela ikusita; «inportantea iruditzen zait».

Kontuak kontu, berak bere lana maite du, eta hori agerikoa da bere hitzetan: «Ez dakizu inoiz zer harrapatuko duzun lanean. Klase aunitzetako lanak egin behar izaten ditugu, batetik bertzera ibili... Lana hagitz polita da, aldakorra eta dinamikoa, eta hori da gehien gustatzen zaidana. Paper kontuak hor daude eta horrek ere denbora eta lan handia eskatzen du, gero eta gehiago gainera, baina lana, berez, aski atsegina da. Ikasteko eta hobetzeko etengabeko erronka da egunerokoa». Hala, animatzeko deia egin die gazteei: «Espezializatutako eskulana behar da eta animatu eta ikasi dezatela, etorkizuna izanen dutelako, eta noski, lanean disfrutatzeko aukera ere bai».









cristalería BIDASOA
Dutxetako manparak
Kristalezko barandak
Ate korrederak
Sukaldeko aurrealdeak
Koadroentzako markoak · Ispiluak
Beira dekoratiboak
Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN
T. 685 720 353
info@cristaleriabidasoa.com

ECHEVERRIA
ZURGINDEGIA
PVC LEIHOAK
ABANTAILAK
ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE
Egiturak · Eskailerak · Ateak · Lurrak
Armairuak · Sukaldeak · Egurrezko leihoak · Leiho mistoak
Leitza errep. · 31745 ITUREN
M. 676 393 996 · T. 948 388 455 · F. 948 456 164
carpinteriaecheverria@yahoo.es

LEIHOAK

Etxeko leihoak ongi aukeratzeko kontuan izan beharreko aholkuak

Erosotasunari, isolamenduari eta energia aurrezpenari zuzenean eragiten dio aukeraketak

Ez da gutxietsi behar leiho batek etxebizitza batean izan dezakeen eragina. Energiaren % 10-20 inguruk leihoetatik ihes egin dezakeela kontuan izanda, tentuz egin behar da aukeraketa. Merkatuan eskaintza ugaria da eta leihoen materialaren eta muntaketaren arabera eraginkortasun hori aldatzen dela jakinda, komeni da hainbat aholku kontuan izatea aukeraketa egin aitzinetik.

Leihoen **materiala** izaten da egin beharreko lehenbiziko aukeraketa. PVCa aukeratzen dutenek, isolatzaile termiko eta akustiko onenetakoa jarriko dute. Mantentze lan gutxi behar du eta kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio bikaina du. Aluminioa ere oso eraginkorra eta iraunkorra da. Profil finagoak jartzea ahalbidetzen ditu, argi gehiago sartzeko. Zurezko leihoak ere aukera bikaina dira, estetika aldetik oso dotoreak eta isolatzaile onak dira, baina mantentze lan erregularrak behar ditu kanpoko aldetik.

Erabiliko den **beira mota** izanen da hartu beharreko bigarren erabakia. Adituek, gutxienez, aire ganberadun beira bikoitza jartzea gomendatzen dute. Gure inguruan negua hotza izaten denez, beira hirukoitza erabiltzea ere gomendagarria izan daiteke. Isolamendu akustikoa ere garrantzitsua da. Kale zaratatsu batean bizi bazara, lodiera ezberdineko lasadun beira laminatuak aukeratzea komeni da.

Leihoak **irekitzeko sistemak** ere kontuan hartu behar dira. Leiho oszilobatanteak dira hermetikoenak eta isolamendu hobea bermatzen dute. Gainera, etxebizitza modu seguruan aireztatzea ahalbidetzen dute.

Leiho on bat erosteak deus gutxirako balioko du, gero gaizki jartzen bada. Berebiziko garrantzia izanen du **instalatzaileak** lana txukun egin eta perimetro osoan apar poliuretanoa eta zigilatzaile espezifikoak erabiltzeak. Pertsianak jartzen diren kasuetan, kutxa bera termikoki isolatuta dagoela ziurtatzea ere garrantzitsua da, askotan hotza eta zarata hortik sartzen direlako.

Leihoa egiteko erabiltzen den materialak bezain bertzeko garrantzia izanen du, beirak eta irekitzeko sistemak

IREKI LEIHOAK
Aluminio R.P.T | PVC | Pertsianak | Toldoak
Itxiturak | Barandak | Kontraleihoak
T. 948 630962 M. 626 313162 H. 31780 BERA
info@irekileihoak.com www.irekileihoak.com




betiko

PVC ETA ALUMINIO AROZTEGIA

PROFESIONALEN ESKUTIK

deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**

- **JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK**
- **AURREZTE ENERGETIKOA**
- **SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA**
- **ISOLAMENDU MAXIMOA**

www.betikopvc.com • T. 948 45 32 59 • betikopvc@betikopvc.com





ELEKTRIZITATEA

«Merkatuko azken nobedadeen berri izateko beti ikasten ari gara»

AITOR IRAZOKI ROMANO MARITX INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

G. Pikabea BERA

«Ttikitatik kable, entxufe eta bonbilla artean» ibili da Aitor Irazoki Romano beratarra. Hala dio. Eta gaur egun ere, bide beretik dabil, aitaren pausoei segika, elektrizitatearen munduan Maritx enpresan. Kontatu duenez, «enpresa duela 50 urte attak sortu zuen. Atta obratan aritzen zen instalazioak egiten eta amak elektrizitateko produktuekin denda izaten zuen. Ikastolatik atera eta meriendatzera dendara joaten nintzen». Kable artean harat-honat ibiltzetik, lanera pasatu zen, aski gazterik: «12-13 urterekin, larunbatetan gurasoei dendan laguntzen hasi nintzen eta 14 urterekin, udan attarekin eta haren lankideekin lanean». 37 urte pasatu dira geroztik, eta hor segitzen du.

Aitaren lekukoa hartu zuenetik bera da enpresako arduraduna eta «denetariko instalazio elektrikoak» egiten dituztela esplikatu du: «etxebizitzetan eta industrian instalazioak, informatikako instalazioak, kotxeen kargagailuak, eguzki panelak, tximistorratzak...». Ez hori bakarrik, «ingeniaritza elektriko lanak, proiektu elektrikoak eta industriako buletinak» egiten dituzte: «Zerbitzu indartsua da obra batean hutsetik hasita bi lanak egitea; batetik, baimen kontuez arduratzen gara, eta bertzetik, obrako instalazioak egiten ditugu».



50 urte

50 urteko ibilbidean enpresa bere bidea egiten joan da: «Hasieran, herrian hasi ginen lanean, eta gure betiko bezeroek Ibardinen bentak ireki zituztenean, Ibardinen hasi ginen, handik Dantxarinera joan ginen, ondotik Luzaidera...». Bertzelako aldaketa batzuen lekuko ere izan da: «Lan egiteko manera, erremintak, Interneta... Urteotan aldaketa pila ikusi ditut. Orain dela urte aunitz ez zegoen Internetik eta instalazio jakin batzuk egiten genituen; orain, berriz, bertze mota bateko instalazioak egiten ditugu. Negozioetan, adibidez, lan egiteko manerak arrunt diferenteak



dira. Dena informatikarekin eta Internetekin egiten da». Horri lotuta, «azken urteotan informatikako lan aunitz» egiten ari direla aipatu du, baita «publikoari irekitako tokietan ikuskatzeetarako proiektuak» ere.

Etorkizunari begira, erronka «Adimen Artifiziala eta Internet» izanen direla iruditzen zaio: «Azken urteotan Internet fuerte sartu da, eta hemendik aitzinera hagitzez gehiago izanen da». Hori erranda, Adimen Artifizialean eta robotikan paratu du arreta: «Lanpostu aunitz desagertzen ari dira, eta gero eta gehiagora joanen da. Adimen Artifizialaren eta roboten mundua urte guttitan sartuko da eta guk horren ikastaroak egin beharko ditugu. Hori programatzen, konektatzen, mantentze lanak egiten... ikasi beharko dugu. Hori izanen da hurrengo urteetako erronka». Hortaz, «beti egokitzen eta ikasten» ari direla erran du: «Instalazio berriak ateratzen dira merkatuan eta horiek muntatzen ikasi behar dugu. Orain dela 25 urte bukatu nituen unibertsitateko ikasketak eta geroztik ez naiz gelditu, beti ikastaroak egiten ari naiz. Zerbitzua emateko azken nobedadeak ikasi behar ditugu».

Gainerakoan, sektorea «ongi» ikusten du. Bateko eta bertzeko, ez dute lan faltarik. «Badugu lana eta izanen dugu, eta alde horretatik, kontent gaude». Gaineratu duenez, «batzuetan, ikasleak praktikak egitera etortzen dira eta denon artean lan guziak aitzinera ateratzen ditugu».

«Attak duela 50 urte sortu zuen Maritx enpresa eta geroztik ez da egun batean ere gelditu»

Langileak eta bezeroak

Gaur egun, lau langile dira: «Hamaika laguneko lantaldea izan dugu, baina Covid garaian kolpe handia hartu genuen. Gaur egun, laurekin ongi moldatzen gara». Bidenabar, lankideei eskerrak emateko probestu nahi izan du eta «atta hasi zenetik, enpresatik pasatu diren langile guziak» gogoan hartu ditu: «Eurei esker eta eurekin, enpresa goiti atera dugu eta eskerrak eman nahiko nizkieke». Guzien artean, bi lankideri egin die keinua: «Beñardo eta Jose Luis. Gaur egun, ez dira holako langileak harrapatzen. Normalean, bizpahiru urtez egoten dira, eta ondotik, bertze lan batzuk bilatzen dituzte. Beñardo eta Jose Luis, ordea, 35 urtez egon dira gurekin, enpresako pilareak izan dira, eta eskerrak eman nahiko nizkieke». Haiekin batera, Oihan anaiaz oroitu da: «Nirekin lanean ari da eta berari esker lana hagitzez errazagoa da».

Lankideez gain, bezeroak hartu ditu hizpide: «Eurei zerbitzua emateko merkatuko azken instalazioen esperoan egoten gara, ikastaroak egiten ditugu, ferietara joaten gara... Horri esker ere, enpresa goiti eraman dugu. Beraz, bezeroei ere, eskerrik asko». Eta gomendio bat emateko tartea ere hartu du: «Jendeak Adimen Artifizialari galdetzen dizkio gauzak, baina izenak dioen bezala, artifiziala da. Profesionalak gu gara, mundu honetan urte pila daramatzagu eta badakigu kasu bakoitzean zer den hoberena eta zer egin behar den. Hori da gure lana».

Aitak irekitako bideari segida ematea erabaki zuen, baina berak ere argi du bere bidea: «Atta orain dela 50 urte hasi zen eta geroztik enpresa ez da gelditu egun batean ere. Hori da sekretua; bezeroak zaintzea eta arreta eta zerbitzu ona ematea».











H. LOPEZ
Tximiniak
Gas, gasolio eta biomasa galdara eta berogailuak
Santiago, 93 ELIZONDO - T. 948 452 126
info@honestolopez.com
www.honestolopez.com

matxako
KALEFAKZIOA · GASA · ITURGINTZA
Iturgintza lanak
Berokuntza mota guztiak
Galdaren instalazioak
"Baxi" markan eskaintza berezia. Eskatu aurrekontua
BAXI
LA NUEVA CLIMATIZACIÓN
609 808 756 • BERA

EZPELURA ITURGINTZA
Berokuntza • Gasa • Eguzki-plakak
Elektrizitatea • Zoru bero emailea
Biomasa • Aerotermia
T. 606 337 427 | OIZ
info@ezpelura.com
www.ezpelura.com

DIRULAGUNTZAK

Laguntza bereziak daude Doneztebeko eta Arantzako eremu historikoak berritzeko

Lehenbailehen zaharberritzeko premia duten etxe aunitz daudela ikusita, Lehentasunezko Birgaitze Eremu izendatuta daude bi herri hauek

Nafarroako bertze 22 herrik bezalaxe, Doneztebeko eta Arantzako alde historikoek ere tratamendu berezia dute gaur egun dirulaguntzaren kopuruari eta laguntza eskaerak tramitatzerakoan segitu beharreko bideari dagokionez.

Zer dira lehentasunez birgaitu beharreko eremuak?

Udalerriak edo horien zatiak dira. Eremu horiek babesteko edo/eta eraberritzeko plan berezi bat dute, bai eta birgaitzea bultzatzen duen udal ordenantza bat ere.

Horren ondorioz, Nafarroako bertze edozein herritan hartzen diren dirulaguntzekin konparatuz, Doneztebeko eta Arantzako alde historikoetan dauden bizitegiak edo pisu etxeak zaharberritzeko laguntza handiagoak eskuratzen ahal dira Nafarroako Gobernuaren aldetik. Laguntzaren eskatzaileek duten errentaren arabera, familia bakarreko etxe baten edo pisu baten kasuan 26.000 euro arteko dirulaguntza eskuratu ahal izanen dute, eta zaharberritu nahi den etxe hori alokairurako bizitegi bihurtu nahi duen promotoreen kasuan, 13.000 euro arteko laguntza bizitegiko.

Informazio sakonagoa eskuratzeko edota laguntza espedienteak tramitatzeko, interesatuak NASUVINSAk Donezteben duen Etxebizitza Bulegora jo behar du.

Hori bai, dirulaguntza hauetarako eskubidea izateko, nahitaezko baldintza da birgaituko den etxe hori ohiko bizileku iraunkor gisa erabiltzeko izatea, eta ez oporretan, asteburuetan eta noizbehinka erabiltzeko etxe gisa.

Esku hartze orokorreko proiektuak

Esku hartze orokorreko proiektuak lehentasunez birgaitu edo zaharberritu beharreko eremuetan dauden etxebizitza eraikinen multzoendako dira, haien birgaitze energetiko sakona egiteko.

Proiektu hauek prozesu parte hartzaileen bidez zehazten dira eta etxebizitza arloan eskuduntza duen kontseilariak onesten ditu, foru agindu baten bidez. Azken finean, proiektu horiek onesteak birgaitze babestuko dirulaguntzak hobetzea dakar.



Doneztebeko Merkatarien karrika



Arantzako Goiko karrika

ADIERAZLE HAU ELKARTE ETA ERKIDEGOEN KONTUARENA DA

1 / 6

Zenbaki horrek produktuaren arriskua adierazten du: 1/6 zenbakiak arriskurik txikiena adierazten du eta 6/6 zenbakiak handiena.

Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsari atxikita dago LABORAL Kutxa, 2011ko urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusitakoari. Gaur egun, 100.000 euroko gehienezko zenbatekoa bermatzen dio Funts horrek gordailugile bakoitzari.



Zure erkidegoak onena merezi du.

Elkarte eta Erkidegoen Kontuarekin, zure erkidegoak baldintza esklusiboak eta neurrirako abantailak lortu ahal izango ditu.

% 1eko UTBko* errentagarritasuna jasoko dute lehen 10.000 €-ek, baldin eta batez besteko saldoa 1.000 €-tik gorakoa izan bada.

EZ du ez mantentze komisiorik, ez transferentzia-komisiorik eta ez ordainagirien gestio-komisiorik.**

* UTBa aldatu egingo da, kontuaren batez besteko saldoa 1.000 €-koa edo txikiagoa bada, kontuak ez du ordainduko; batez besteko saldoa 1.000 €-tik gorakoa bada, kontuak % 1eko ITNa ordainduko die lehen 10.000 €-ei (gainerako saldoak ez du ordainketarik jasoko). Adibideak: batez besteko saldoa 700 €-koa bada, kontuak ez du interesik sortuko (% 0,00ko UTBa); batez besteko saldoa 10.000 €-koa bada, kontuak 100,00 € sortuko ditu lehen urtean (% 1,00ko UTBa); batez besteko saldoa 15.000 €-koa bada, kontuak 100,00 € sortuko ditu lehen urtean (% 0,67ko UTBa). Interesak hiru hilean behin likidatuko dira, otsailaren 28an, maiatzaren 31n, abuztuaren 31n eta azaroaren 30ean./** Ez du komisiorik sarrizko eragiketetan: ez ordainagiriak jaulkitzeagatik eta ez online transferentziak egiteagatik, ez nazionalak eta ezta Europar Batasuneko herrialdeen artekoak, betiere gehienez 50.000 € eragiketako eta eurotan badira. Ez du mantentze-komisiorik, baldin eta kontuen hiruhilekoko saldoa 300 €-tik gorakoa bada batez beste. **Zorpekoa izanez gero edo saldoa 300 €-koa edo txikiagoa bada, mantentze-komisioa 9 €-koa izango da hiruhilekoan (% 0ko ITNa eta ~% 11,85eko UTBa kalkulatzeko, urtebetean konstante eutsitako 290 €-ko eguneko saldoa hartu da aintzat). Online Banka doan.**

LABORAL kutxa

Hay otra forma

INDARRI
HOTZ KOMERTZIALA
ETA INDUSTRIALA
AIRE GIROTUA
M. 639 103 305 - BERA
indharri@gmail.com

MARTIN PUEBLA
SUKALDE ETA BAINUGELA
ERREFORMAK
ITURGINTZA ETA BEROGAILUEN
MANTENTZE LANAK
BAZTAN
MARTÍN: 642 99 61 38 SONIA: 699 47 80 28
tufontanero.profesional@gmail.com

ULI-ZAR
Iturgintza
ITURGINTZA | BEROKUNTZA
GASA-GASOLIOA | MOBLEAK
MANPARAK | KOMUNERAKO OSAGARRIAK
Tel.647 525 516 • ARESO | LEITZA
arkaitzareso@gmail.com

ITURGINTZA

Zeintzuk dira aerotermiak dituen abantailak eta desabantailak?

Azken urteetan ospe handia hartu du aerotermiak. Berokuntzako, klimatizazioko edota ur bero sanitarioa sortzeko gai den sistema da aerotermia. Alderantzizko bero-ponpa baten bidez kanpoko airetik energia ateratzeko gai dena. Eraginkortasun handiko sistema da, baina ba al du desabantailik?

Egin beharreko **hasierako inbertsioa** izan daiteke aerotermiak duen oztoporik handiena. Gas naturaleko galdara bat jartzea baino garestiagoa ateratzen da. Ez da edozein poltsikorako egina dagoen sistema. 15.000-25.000 euroren bueltan balio du aerotermiako aparailuak eta etxearen tamainaren eta instalatutako potentziaren arabera prezioa gorantz joanen da. Hori, bai, gerora, gas naturalarekin edo dieselarekin alderatuta, %60 eta %75 arteko **aurrezkia** lor daiteke eta eguzki panelekin konbinatzen bada, %80ra irits daiteke. Abantailen artean, **sistemaren eraginkortasuna** goraipatzen dute adituek. Kontsumitzen duen 1 kWh elektriko bakoitzeko, 3 edo 4 kWh bero sortzeko gai da. Hau da, energiaren %75 doakoa da, airetik datorrelako. Gainera, **hiru sistema gailu bakar batean** integratzeko aukera eskaintzen du. Ekipo berarekin neguan berokuntza, udan hoztesistema edo aire girotua eta etxeko ur beroa lor ditzakezu.



Argazkia: Magnific.

Mantentze kostu baxua eta segurtasuna dira sistema honen aldeko bertze bi ezaugarri. Ez dago errekuntzarik, ez dago gas-ihesik edo kerik eta mantentze lanak ohiko galdarenak baino askoz errazagoak eta merkeagoak dira.

Kontuan izan behar da aerotermia jarri ahal izateko kanpoko unitate bat, haizagailua, eta barruko unitate bat, hidromodulua eta ur depositua, instalatu behar direla. Horretarako, **toki nahikoa** izan beharko da etxebizitzaren kanpoko eta barruko aldean.

JP INSTALAZIOAK
ITURGINTZA ETA ELEKTRIZITATEA
INSTALATZAILE BAIMENDUA
INSTALAZIOEN FINANTZAKETA
679 35 49 47
jpinstalazioak@gmail.com
Sunbilla

Apezteguia Berria
ferretería – burdindegia

Margoak eta barnizak
Erreminta elektrikoa - Esku erreminta
Konpresoreak
Lanerako arropa
Baratzea lantzeko tresnak
Komunerako gaiak
Estufak - Pelleta







www.apezteguiaberria.com - info@apezteguiaberria.com

- Leitzako Errepidea 33, Doneztebe - T. 948 450 994 - F. 948 450 882 -



Apezteguia Elizalde
ARKITEKTOAK

OBRA BERRIAK
LOKALAK - BARNE DISEINUA
JARDUERA SAILKATUAK
ZAHAR - BERRITZEAK
TEILATU BERRITZEAK



Inato Irazoki etorbidea, 2 - DONEZTEBE T. 626 261 990 info@apezteguiaelizalde.com



ELEKTRIZITATEA ETA SUKALDEAK

«Bezero bakoitza bakarra da eta gure lanarekin kontent egotea nahi dugu»

MIKEL JAURENA DANBORIENA JAURENA



E. Iraola BERA

1981ean sortu zuten Beran Jaurena enpresa eta erreleboa etxean emanda, Mikel Jaurena Danboriena da orain enpresako arduraduna. «Energia sektoreko enpresa» direla erranez aurkeztu du Jaurena: «hori da gure indargunea. Gure lan jardunaren %80 elektrizitate lanekin lotua dago: argiztapen proiektuak, erreformak, domotika, energia berriztagarriak, telekomunikazioak... ». Ez dira, ordea, horretan bakarrik ari: «neurrira egindako sukaldeak diseinatu eta muntatu eta etxetresna elektrikoak ere saltzen ditugu».

Zerbitzuaren kalitatean jarri nahi izan du azpimarra: «proiektu bat ez da soilik lana egitea, bezeroa une oro babestua eta entzuna sentitzea da. Bezeroari erantzun osoa, hurbila eta kalitatezkoa ematea da gure nahia». Sukaldea diseinatzeko orduan ere hori dute buruan: «sukaldea izaten da etxe aunitzen erdigunea eta txoko berezi hori maitasun handiz eraiki behar da». Diseinua, funtzionaltasuna eta kalitatea uztartzen dituzte beraien proiektuetan: «neurrira egiten diren lanak dira eta bezeroaren estilora egokitzen gara: linea moderno eta minimalistetatik hasi eta estilo klasikoetaraino. Kalitatezko altzariak dira eta punta-puntako teknologia baliatuta, bezeroen egunerokoan lagungarri izanen diren bitartekoak ere txertatzen ditugu proiektuetan».

Urtetako esperientzia dute eta prozesu guztia zaintzen dute: «diseinutik hasi eta instalazio azkarra, zehatza eta garbia ziurtatuz. Zure ametsetako sukaldea eraikitzeko orduan, elkarrekin eginen dugu pauso bakoitza».

Bezeroarekin hartu-emana

Horretarako, bezeroarekin hartu-emana zaintzea funtsezkoa da Jaurenaren ustez: «bezeroarekin elkartu eta lehenbiziko hartu-eman hori patxadaz egitea gustatzen zaigu. Sukalde bat diseinatzerakoan baita →





Miguelena
SUKALDEAK

Etxetresnak

Pareta-armairuak

Sukalde eta
bainugelako altzariak

T. 948 450 925 I M. 624 47 57 25
Ameztia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE
www.electrodomesticosmiguelena.es









⟶ elektrizitate instalazio oso bat egiterakoan ere. Hainbat galdera planteatzen dizkiet eta gauza bakoitza non eta nola jarri nahi duten galdetu». Bigarren bilera batean zehazten dute gauza bakoitza non jarri behar den: «prozesuari behar duen denbora eskaintzea garrantzitsua da. Adibideak erakustea, aukera desberdinak planteatzea... iruditzen zait eskertzen dutela gure laguntza. Bezero bakoitza bakarra da eta gure lanarekin kontent egotea nahi dugu».

Argiaren erabilera

Jaurena zer den azaltzeko orduan, elektrizitate hitza aipatu du behin eta berriz Mikel Jaurenak eta nabari da hori beraien proiektu guztietan. Gaur egungo etxebizitzen diseinuan ere, badirudi argiztapenari geroz eta garrantzia gehiago ematen zaiola: «mentalitatea aldatu dela uste dut. Garai batean, zenbat eta argi gehiago hobe izaten zen. Egongelako sabaia foku pila batekin genuen... Orain argia dekorazioko bertze elementu bat da. Zeharkako argiak erabiltzen dira eta goxotasuna eta lasaitasuna bilatzen da». Horren adibideak eman ditu: «fosak egiten dira, argia erabiltzen da elementuren bat nabarmentzeko...». Momentuko joeren araberakoa dela uste du: «Hemendik hamar urtera ez dago jakiterik zein izanen den eskaera. Orain etxean giro goxo hori lortzea da lehentasuna».

Etengabe ikasten

Sektore aldakorra da beraiena, «etengabe ikasten ari gara». Azken urteetan energia berriztagarrien inguruan «iraultza» gertatu dela ikusi du: «Gure helburu nagusia eta eguneroko konpromisoa argindar eta energia-hornidura fidagarri eta jasangarria bermatzea da eta bezero bakoitzaren beharretara egokitzea».

Azkeneko urteetan dirulaguntzak tarteko, eguzki panelak jarri dituzte han eta hemen: «boom handia izan da. Orain dirulaguntzak akabatu dira eta bajatu da pixka bat eskaera». Jaurenak «energia berriztagarriak, etorkizuna» direla uste du eta bezeroei hori azaltzen eta erakusten saiatzen da: «Batzuk ulertzen dute energia aurrezteko bidea dela. Bertze batzuk ez dute sinesten. Nik etxean paratua dut eta fakturekin erakusten diet aurrezkia benetakoa dela. Saltzen



dudan hori nire etxean ere badudala». Pixkanaka «kontzientzia hartzen» ari garela uste du, «eta hobekien funtzionatzen duena hilabete bukaerako faktura izaten da. Jendea etortzen zaizu erranez, lehen pagatzen nituen 60 euro eta orain 40 euro». Argi du Jaurenak: «gure neurrian ahal badugu aurreztu hemendik edo handik, saiakera egin behar dugu».

Zerbitzu integrala

Instalazio bat hutsetik egin, berritu edota konponketak ere egiten dituzte: «sektore bakoitzaren eskakizun teknikoetara egokitutako zerbitzu osoa eskaintzen dugu. Segurtasuna, eranginkortasuna eta indarrean dagoen araudia betetzea da gure helburua».

Ostalaritzan aritzen dira: «mantentze lanak, giro argiteria eta argiteria teknikoa, segurtasun araudietara egokitzea, eta sukalde industrialetarako koadro elektriko espezifikoen instalazioa... egiten ditugu». Etxebizitzetan ere hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte: «Instalazio berriak, ziurtagiri elektrikoak, larrialdiko matxuren konponketa, mekanismoen aldaketa, LED argiteriaren optimizazioa eta oinarrizko domotika». Eta industria eta merkataritzan errendimendu handiko soluzio elektrikoak ere eskaintzen dituzte». Instalazioak egin eta telefonoa ere beti martxan dute: «24 orduz eskaintzen dugu zerbitzua».

«Argindar eta energia hornidura fidagarri eta jasangarria bermatu eta bezeroren beharretara egokitu nahi dugu»

DESINBERA

DESINSEKTAZIOAK | DESINFEKZIOAK
HEGAZTIEN KONTROLA
ARRATOI-HILTZEAK
EGUR TRATAMENDUAK

ZURAREN TRATAMENDUA

Zurezko egiturak eta altzariak kontrolatu eta zaindu egin behar dira osasuntsu mantentzeko eta haien balio bizitza luzatzeko. Hori dela eta, egurra sendatzeko eta izurriteak prebenitzeko tratamenduak egiten ditugu termita, xilofago, onddo eta lizunen kontra.

Izurritearen arabera, tratamenduetarako metodo ugari erabiltzen ditugu, horien artean:

- Pintzelkatzea: Zuraren gainazala babesteko produktu tratatzailea brotxarekin edo arrabol bidez ematean datza.

- Lainoztatzea: Aire konprimatutako ekipoen bidez, produktuaren lainoa zabaltzen da zuraren gainazalean.

- Injektatzea: Kaltetutako egurrean zuloak egiten dira eta ziri bereziak sartzen dira. Aire konprimatuaren bidez, zura barnetik tratatuko duen likido bat injektatzen da. Gainera, likidoa gibelerat ez ateratzeko, ziriek balbula berezi bat izaten dute.

- Airerik gabeko ihinztagailu elektriko bidez: Aire konprimatuaren beharrik gabe, makina berezia erabiltzen da tratatu beharreko eremua gel batez lainoztatzeko. Eremua erabat estalia gelditzen da, pintzelkadak ematen duen emaitza bera lortuz, baina modu azkar eta eraginkorrean.



AIRERIK GABEKO IHINZTAGAILU ELEKTRIKO BIDEZ

LAINOZTATZEA



PINTZELKATZEA



INJEKTATUTA



617 77 50 53 | www.desinbera.com | info@desinbera.com - desinbera@gmail.com

Rekal SALUD AMBIENTAL
SAMITECH
Kimikorik gabeko tratamenduak



ZUREN KONTSERBAZIO INTEGRALEAN ADITUAK

IZURRITEEN KONTROLERAKO ADITUAK
Ameztia Zeharkarrika 7, DONEZTEBE - 635 739 249 - www.rekal.es
SENTRITECH
Termiten koloniak suntsitzen liderra







ERAIKUNTZA MAKINERIA

«Toki iritsezinetan lan egiteko aukera ona ematen dute plataformek»

MARTXEL ARRIBILLAGA INDABURU BIDASOA PLATAFORMAK

R. Oskariz BERA

Bizitza profesionala kirolaren eskutik hasi bazuen ere, «lana eta kirola betitik bateratu» dituela dio Martxel Arribillaga Indaburuk. Gaur egun *frigorista* industriala da, eta Indarri zein Bidasoa Plataformak enpresen zuzendaria. Indarrin 16 urterekin hasi zen aitarekin lanean: «berak eta lankideek erakutsi zidaten klimatizazioaren eta hotz industrialaren artea». 17 urte pasatu dira geroztik, «eta ilusio handiarekin segitzen dut».



UTZITAKOA

Altueran egiten diren lanak

Duela lau urte abiatu zuen Bidasoa Plataformak. Azaldu duenez, «bi jasogailu erosi genituen Indarriko taldeak egiten zituen obretan erabiltzeko, eta berehala gure inguruko enpresa eta lagun batzuk makinak uzteko eskatzen hasi ziren. Hor konturatu nintzen zerbitzu bat gehiago ematen ahalko genuela, eta modu horretan makina mota gehiago erosten ahalko genituela. Makina gehiagorekin, zerbitzua hobea eskaintzeaz gain, Indarrik ere ahalmen eta segurtasun handiagoa izanen luke lanak egiterakoan».

Altuerako lanak egiteko jasogailu eskaintza zabala dute eskuragarri: «kamionetak, guraize makinak, besoak... bakoitzetik altuera desberdinekoak eta elektrikoak, gasoilezkoak zein hibridoak». Izan ere, «makina batek ez du lan guzietarako balio, baina lan bakoitzerako makina apropos bat dago. Hori dela eta, aukera gero eta zabalagoa dugu gure parkean». Lan gehien enpresekin egiten badute ere, «zerbitzua partikularrei ere ematen diegu».

Plataformak erabiltzeko arrazoirik handiena «lantaldearen segurtasuna» dela dio. Gainera, «erosotasunez lan egiteak emaitza hobeak izaten ditu lana bukatzerako orduan, eta makina hauek toki iritsezinetan lan egiteko aukera ona ematen dute».

Lan bakoitzak bere makina duenez, «barneko lanetarako plataforma elektrikoak erabiltzen dira gehien Gure kasuan normalean fabriketan alokatzen ditugu». Kanpoan aritzeko, berriz, «gasoilezkoak» izaten dira nagusi. «Eta lan egin behar den tokiari begira, zarata edo emisiorik ez izateko, hibridoak ditugu». Gainera, «makinak gure kamioian garraiatzen dizkiogu bezeroari».

Etorkizunera begira, «helburu profesional bezala, lantaldearen ongizatea eta eskaintzen dugun zerbitzuen kalitatea dira lehentasunak. Horretarako, bai Indarri bai Bidasoa Plataformetan behar den bezala eguneratuak egotea da helburu nagusia».

Azkenik, «hartu duten bidea ez da erraxa, baina hagitz kontent nago. Eskerrak eman nahi diet taldeari eta laguntzen nauten pertsona guziei».

«Makina batek ez du lan guzietarako balio, baina lan bakoitzerako makina apropos bat dago»









ALMACO Eraikuntzako materialak

Informazio eta aukera gehiago
www.almacobaztan.com

Errepide nagusia, Elizondo
Tel. 948 580 104

GAMMA

Makinak eta zerbitzuak

www.ecasal.com

Aldamio eta muntaketak

ECA S.A.L.

Zure obra bultzatzeko
BEHAR DUZUN GUZTIA

ECA S.A.L.



MAKINERIA ETA ZERBITZUAK ECA S.A.L.

Eraikuntzako eta burdindegiko makineriaren salmenta, alokairua eta konponketa

ALDAMIOAK ETA MUNTAKETAK ECA S.L.

Aldamioen, plataformen, karga jasogailuen eta zinbrien muntaketak



Tel. 948 24 10 17 - Multiva

Camino Labiano, 44 - 31192 Mutiloagoiti (Nafarroa)

ETXE GARBI

Honako garbiketak egiten ditugu:

Atariak,
etxe barrenak,
kristalak,
obra amaiera
eta
landetxeak



Aita Donostia, Elizondo 699 006 946
limpiezasetxegarbi.com
info@limpiezasetxegarbi.com

GARBIKETAK

«Publizitate hoberena ahoz ahokoa da eta urteekin aunitz handitu da enpresa»

JENNY JIMENEZ LEON ETXE GARBI

R. Oskariz ELIZONDO

2012an abiatu zuten Etxe Garbi garbiketa enpresa Jenny Jimenez Leonek eta bere senararrak. Azaldu digunez, «gaur egun pertsona aunitzek etxetik kanpo egiten dute lan eta ez dute denborarik izaten etxeari eskaintzeko. Jende pila bati aditzen genion horrelako zerbitzua behar zutela erraten eta honekin hastea erabaki genuen. Nik ez nuen lehenagotik esperientziarik lanbidean, baina senarrak bai».

Denborarekin pila bat aldatu omen da enpresa: «hasmentan ez gintuen inork ezagutzen, baina publizitate hoberena ahoz ahokoa izaten da eta guttinaka ezagunak egiten hasi ginen Baztanen eta baita Iparraldeko inguruan ere, han lan aunitz egiten baitugu». Horrela, enpresa «aunitz» handitu da; «senarra eta biak bakarrik hasi ginen eta orain zortzi langile gara».

Etxez etxe

Etxe partikularrak, atariak zein lantegiak garbitzeko zerbitzua eskaintzen dute; «eta orain batez ere landetxeetan egiten dugu lan, batzuetan etxea garbitu bakarrik, baina bertze batzuetan zerbitzu osoa eskaintzen dugu; maindireak biltzea, garbitegira eramatea, dena garbitzea eta txukuntzea hurrengo sarrerarako...». Horrez gain, «obra amaierako garbiketak egiten ditugu, baita maila industrialean ere. Landetxeekin batera, hori da lanik gehien ematen diguna momentu hauetan».

Normalean, «bezeroa posta elektronikoz edo telefonoz jartzen da gurekin harremanetan. Gu etxebizitza edo tokira hurbiltzen gara eta aurrekontua egiten dugu, kontuan hartzen tokiaren tamaina eta zer garbitu nahi duten. Toki batzuk ez daude hain zikinak eta guttiago tardatzen dugu, baina bertze batzuetan garbiketa sakonagoa egiten dugu».



UTZITAKOA

Eta noski, «leku batzuetara maizago joan behar dugu eta langile gehiago edo guttiago behar izaten ditugu garbitzeko». Erabilitako produktuei dagokienez, «orain dena ekologikoa erabiltzen dugu».

Etxe Garbikoek Baztanen egiten dute lan, batez ere, baina baita Iparralden eta Gipuzkoan ere: «Hendaian, Hondarribian, Irunen... leku guzitatik mugitzen gara». Gainera, «aurten lan bolumena aunitz handitu zaigu, eguraldi onagatik eta uda luzatu egin delakoz. Alde horretatik ez gara kexu!».

Etorkizunera begira, «enpresarekin segitu nahi dugu, eta gehixeago handitzen ahal badugu, hobe». Erronkarik handiena «konpetentzia» dela dio, «garbiketa enpresa gehiago ditugu orain inguruan eta nabari da, prezioak jautsi baitira. Gainerakoan, dena ongi doa».

«Gaur egun pertsona aunitzek etxetik kanpo egiten dute lan eta ez dute denborarik izaten etxeari eskaintzeko»

LA CONTINENTAL
"Siempre a tu servicio"
SERVICIOS DE LIMPIEZA

OBRA ON BATEK NEURRIKO GARBIKETA MEREZI DU
GARBIKETA PROFESIONALA

ESPAZIOAK ERABILTZEKO PREST
MAKINARIA PROFESIONALA
MATERIALAK ETA AKABERAK ZAINDUZ

634 010 346
NAFARROA ETA INGURUAK

Obren edo zaharberritzeen ondotik espazioak eraldatzen ditugu. Lan profesional eta eraginkorra, detaile guztiak kontuan hartuz.

ASKAPE
CONSTRUCCIONES SOBRINO, S.L.

ERAIKUNTZA HONDAKIN KUDEATZAILE ZENTROA
Kontenedore zerbitzua
Material birziklatua sortzen dugu
T. 948 592 111
canterasaskape@gmail.com

TRANSTXAKAIN
TRANSTXAKAIN. s.l.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY
Aurreztu!

ERAIKUNTZA HONDAKINEN KUDEATZAILEA (Nafarroako Gobernuaren baimena)
KONTENEDOREEN ALOKAIRUA 20 m³ arte
PUTZU SEPTIKOEN GARBITZE ETA LIBRATZE LANAK

MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK
• Kamioia 15 m-ko garabiarekin
• Kamioia 32 m-ko garabiarekin
• Kaja baskulatzailearekin

• Zisternarekin:
Putzu septikoak
Tuberietako ataskoak kentzea
Ura lekuz aldatzea

Otsango Ind. 14 • LESAKA • info@transtxakain.com
T. 669 840 198 | 948 638 052 • F. 948 627 578

aurreztu
ur ihesak
«Ur ihes baten susmoa badago, lehenbailehen hartu beharko genituzke neurriak»
uraurreztu.eus | 608 947 506

Inzakardi
Pinturak
- PINTURA LANAK OROKORREAN -
Eduardo Oyarzabal
m. 630 511 488
Inzakardi, 10
DONEZTEBE/SANTESTEBAN

Melo Pinturak
T. 609 873 178
LEITZA
melopinturas@gmail.com
www.pinturasmelo.com

PINTURA ETA DEKORAZIOA
BIDASOA
T. 948 63 11 58
M. 619 88 97 23
pinturasbidasoairun@gmail.com
facebook:pinturasbidasoairun

PINTURAK

«Eskualdean badago lana eta gustura aritzen naiz pintatzen»

EDUARDO OIARZABAL MITXEO INZAKARDI PINTURAK



UTZITAKOA

R. Oskariz DONEZTEBE

Duela 33 urte hasi zen pintura lanetan Eduardo Oiarzabal Mitxeo; «16 urte nituelarik Doneztebeko pintore batek berarekin lan egiteko proposatu zidan eta horrela hasi nintzen». 2014an, berriz, bere kabuz hastea erabaki zuen eta Inzakardi abiatu zuen. «Krisiarekin ez zen lan handirik eta bakarrik hasi nintzen. Pixkanaka-pixkanaka lanak hartzen joan nintzen eta ongi aritzen naiz gaur egun».

Bera bakarrik aritzen da lanean, «eta normalean barnean egiten dut lan, pintatzen eta bernizatzen. Baztanen, Malerrekan eta Bortzirietan aritzen naiz batez ere. Noizbait Iruñera ere joan izan naiz, baina hemen inguruan badago lana, eta hobe!».

Kolore eta gustu guztiak

Urteekin lana egiteko modua «aunitz» aldatu dela dio: «pintura motak, paretak lixatzeko makinak, bernizak... aukera gehiago daude gaur egun». Horrekin batera, jendeak eskatzen duena ere aldatzen ari da: «modak edo estilo berriek eragin handia dute. Lehen, adibidez, gotele aunitz ikusten zen eta orain inork ez du nahi. Paretetako paperak, aldiz, geroz eta gehiago jartzen hasi dira berriz ere».

Koloreei dagokienez, «orain denek xuria eta kolore argiak nahi izaten dituzte etxeko paretetan, jendea nekatu da kolore biziez. Nik ere nahiago ditut kolore argiagoak, xuriak eta beixak». Baina noski, «hori bakoitzaren gustuaren araberakoa da». Lan egiteko orduan ere eragina du: «xuriarekin lana azkarrago egiten da, sabai eta paretari kolore bera ematen baitzaio. Koloreekin kapa gehiago eman behar izaten dira».

Lanarekin «gustura» dago: «beti aritu izan naiz pintatzen eta hala segituko dut». Etorkizunera begira, errelebo faltak kezkatzen du gehien, «lan aunitz dago, falta dena lan egiteko jendea da. Gazteek nahiago dute lantegietan aritu obran baino, baina normala da». Sektore osoan eta eskualde guzian berdin ikusten du egoera, «agian orain badira igeltsero gazte batzuk ere, baina gutti. Ofiziotako jendea jubilatzen ari da baina guttik hartzen dute erreleboa. Hori bai, lana berdin-berdin izanen da eta norbaitek egin beharko du».

Inzakardiri dagokionez, «nik erretiroa hartzean ez dut uste enpresak segida izanen duenik, momentuz ez behintzat».



Pintura eta bernizekin egiten du lan. UTZITAKOA